# ALDERDI BERRIAK

2006ko AZAROA • 8.zenbakia

EAJ PNV




"Hitza, Euzko Alderdi Jeltzalearen hitza, bi esalditan laburbiltzen da: Lehenengoa, gure goiburua: Euskotarren aberria Euskadi da. Bigarrena, gure helburua: Burujabetza, gure buruaren jabe izatea".

"Tenemos la mirada limpia hacia el futuro. Futuro que deberemos construir desde el respeto a la Memoria, y desde la convicción de que la paz exige el cese, junto con las armas, del esquema impositivo que trata de justificarlas, del que todo vale para conseguir objetivos políticos".

www.eaj-pnv.com

KOORDINATZAILEA
COORDINADOR
Jose Unzueta

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri "Amatiño"
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa
Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia

DIAGRAMAZIOA
DIAGRAMACION
EAJren Multimedia Departamendua

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

# ALDERDI BERRIAK

2006ko AZAROA

# AURKIBIDEA
# SUMARIO

**Imaz: "Euskaldunon hitza. Esta es la prioridad de nuestra acción política, sin renunciar a nuestros planteamientos" (pag. 3)**

**Alderdi Eguna irudietan (6.orr.)**

**El Lehendakari invita a la sociedad a participar sin dirigismos en el proceso de paz (pag. 10)**

**Balendin Enbeitaren mendeurrena (13.orr.)**

**Oroimenaren urtea. Las guerras de la guerra (pag.14)**

**Josu Jon Imazek Kataluniako Sant Jordi gurutzea jaso (15.orr.)**

## NUESTRA PALABRA

Ante el nuevo tiempo político, EAJ-PNV está donde siempre ha estado. Porque la paz es la victoria de la posición que nuestro partido, con la mayoría de la sociedad vasca, ha adoptado en los últimos treinta años. Anteponiendo la libertad al totalitarismo; defendiendo la democracia, frente a la imposición de los proyectos políticos por la fuerza y el terror. Y apostando por el diálogo para que en este país vayamos todos juntos. Sin fracturas. Sin derrotados. Sin excluidos.

Tenemos la mirada limpia hacia el futuro. Futuro que deberemos construir desde el respeto a la Memoria, y desde la convicción de que la paz exige el cese, junto con las armas, del esquema impositivo que trata de justificarlas, del que todo vale para conseguir objetivos políticos.

Estamos donde hemos estado siempre. Y hemos llegado hasta aquí por la apuesta que EAJ-PNV hizo hace 27 años. Por el liderazgo de EAJ-PNV. Tenemos la economía, los servicios, la calidad de vida, el empleo que tenemos, porque hace 27 años algunos apostamos por construir este país, frente a los que sólo han vociferado, han destruido y han puesto palos en las ruedas. Y pese a todo hemos salido adelante. Y vamos a seguir saliendo adelante.

## EUSKALDUNON HITZA

Euzko Alderdi Jeltzalea non ote dagoen? Betiko lez. beti egon garen lekuan. Giza-eskubideen defentsan eta indarkeria gaitzetsiz. Bakearen alde apostu zintzoa eta leiala eginez. Gure herriaren onetan eta elkarrizketa bultzatuz. Herri honek bere etorkizuna eta bere autogobernua demokratikoki definitzeko eta erabakitzeko duen eskubidearen defentsan. Euskal Herriaren defentsan. Eta eguneroko herrigintzan. Hor dago EAJ. Nazioa eraikitzen. Nazio bat garelako. Hau da gure helburua. Hau da gure hitza. Euskaldunon hitza.

Hitza, Euzko Alderdi Jeltzalearen hitza, bi esalditan laburbiltzen da: Lehenengoa, gure goiburua: **Euskotarren aberria Euskadi da**. Bigarrena, gure helburua: **Burujabetza,** gure buruaren jabe izatea.

Honetarako sortu ginen alderdi jeltzale gisa. Eta hau da gure izatearen arrazoia: Aberria, bere nortasuna eta bere burujabetza. Hau da gure hitza. Abertzaleen hitza. EAJren konpromisoa. Eta gure hitza anitz euskalkitan baina hizkuntza bakarrean adierazten dugu. Esparru politiko ezberdinetan, baina aberri berean, Euskal Erkidegoan, Nafarroan zein Iparraldean. Abertzaleak garelako eta gure aberria Bidasoaz gaindik zabaltzen delako. Zazpiak bat garelako. Hau da gure hitza.

# IMAZ: "EUSKALDUNON HITZA es la prioridad de nuestra acción política, sin renunciar a nuestros planteamientos"



Josu Jon Imaz jelkide eta jeltzaleei hitz egiten

**El presidente del EBB, Josu Jon Imaz, en su intervención en el Alderdi Eguna indicó que "tenemos otra oportunidad para la paz. Estamos viviendo la ilusión y la esperanza de la paz. Palabra de vasco. Euskaldunon hitza. Esta es y va a ser la prioridad de absoluta de nuestra acción política, sin renunciar a nuestros planteamientos y objetivos políticos".**

En las campas de Foronda que congregaron a miles y miles de alderdikides, Imaz señaló que "EAJ-PNV está en este proceso de paz donde hemos estado siempre. Con las ideas claras. Porque la paz es la victoria de la posición que nuestro Partido con la mayoría de la sociedad vasca ha adoptado en los últimos treinta años, anteponiendo la libertad al totalitarismo. Defendiendo la democracia, frente a la imposición de los proyectos políticos a través de la fuerza y el terror. Y apostando claramente por el diálogo para que en este país vayamos todos juntos. Sin fracturas. Sin derrotados. Sin excluidos. Y hemos llegado hasta aquí por la apuesta que EAJ-PNV hizo hace 27 años. Por el liderazgo de EAJ-PNV".

El dirigente jeltzale, se mostró confiado en que EAJ-PNV va a liderar Euskadi hacia un nuevo acuerdo político. "Un acuerdo que incluya el respeto a la libre voluntad democrática de los

**EBBren lehendakari den Josu Jon Imazek, Alderdi Egunean izandako parte-hartzean adierazi zuen "bakerako beste aukera bat dugula. Bakearen ilusioa eta itxaropena ari gara bizitzen. Euskaldunon hitza. Hori da eta izango da gure jardun politikoaren erabateko lehentasuna, gure planteamendu eta helburu politikoei uko egin gabe".**

Milaka eta milaka alderdikide bildu zituen Forondako zelaietan, Imazek agertu zuen "EAJ alderdia bake prozesu honetan beti egon den tokian dagoela. Ideiak argi izanez. Bakea gure Alderdiak, euskal gizartearen gehiengoarekin, azken hogeita hamar urteotan, harturiko oposizio jarreraren garaipena delako, askatasuna totalitarismoaren aurrean jarriz. Demokrazia defendatuz indarra eta beldurraren bidezko proiektu politikoen aurrean. Eta argi eta garbi elkarrizketaren aldeko apustua eginez, herri honetan guztiok batera abia gaitezen. Hausturarik gabe. Garaiturik gabe. Kanporaturik gabe. Eta honaino iritsi gara orain dela 27 urte EAJ taldeak egin zuen apustuarengatik. EAJren buruzagitzagatik".

Burukide jeltzaleak, konfiantza handia agertu zuen EAJ taldeak Euskadi akordio politiko berrirantz eramateko. "Euskaldunen borondate demokratiko askearenganako errespetua jasotzen



**El presidente del EBB con los miembros de la ejecutiva nacional**

vascos, que nos dé un nuevo marco de autogobierno, con más capacidad para que sigamos creando más bienestar y calidad de vida para los vascos. Un acuerdo que nos permita decidir a todos nosotros y nosotras. En paz y libertad. Vamos a liderar este acuerdo. Es la palabra de EAJ-PNV. Palabra de vasco. Euskaldunon hitza".

Imaz añadió sobre este asunto que "este Partido va a cumplir su palabra. Vamos a decidir nuestro futuro en paz y libertad. Y en mesas, sillas, cama o sofá, vamos a alcanzar un acuerdo. No nos quedemos con lo de la mesa, que es sólo un instrumento. Lo importante es el acuerdo. Y que este acuerdo de futuro lo ratifiquéis todos vosotros, como lo expuso el Lehendakari en el pleno de Política General".

## Construcción nacional y construcción social

Así mismo, el líder del EBB hizo mención a que en estos momentos toca hacer construcción nacional y social desde los ayuntamientos y diputaciones. "En el día a día. Y ahí, gracias a todos vosotros, a los cientos de concejales y alcaldes que trabajáis cada día, quitando horas a la familia y al descanso, estamos más cerca de los problemas y de las soluciones que nadie. Somos un partido pegado al terreno. Pegado a los problemas de la gente".

Josu Jon Imaz recordó una anécdota que contaba Xabier Arzalluz y que hacía referencia a una asociación de minusválidos que fue a Sabin Etxea antes de unas elecciones al Parlamento Vasco para que el Partido recogiese aspiraciones suyas, en temas de accesibilidad. "Xabier muy receptivo les preguntó: ¿habéis estado con el resto de partidos? Pues sí. ¿Y qué os han dicho los de HB? Que no nos preocupemos. Que primero hay que conseguir la autodeterminación y que, cuando se resuelva eso, lo nuestro ya se arreglará. Algunos partidos andan como aquellos. Pensando sólo en la capacidad de decisión. Y mientras tanto hay que decidir. Y nosotros como siempre, exigiendo nuestros derechos como pueblo pero, al mismo tiempo, pegados a los problemas de la gente".

El dirigente nacionalista, también hizo hincapié en las próximas elecciones municipales y forales. "Nos quedan ocho meses de

duen akordioa, autogobernurako esparru berria emango diguna, euskaldunentzat ongizate gehiago eta bizi kalitate hobea sortzen jarraitzeko ahalmen gehiagorekin. Gutako bakoitzari aukeratzea ahalbidetuko dion akordioa. Bakean eta askatasunean. Akordio honen buruan egongo gara. EAJren hitza da. Euskaldunon hitza".

Kontu horren gainean Imazek gaineratu zuen: "Alderdi honek bere hitza beteko du. Gure etorkizuna aukeratuko dugu bakean eta askatasunean. Eta mahai, aulki, ohe edo sofatan akordioa lortuko dugu. Ez gaitezen bakarrik mahaiarenarekin gera, baliabide bat besterik ez da-eta. Garrantzitsua dena akordioa da; eta etorkizuneko akordio hau zuek guztiek berrestea, Lehendakariak Politika Orokorreko osoko bileran agertu zuen moduan".

## Nazio eraikuntza eta gizarte eraikuntza

Halaber, EBBren buruak aipatu zuen une honetan nazio eraikuntzari eta gizarte eraikuntzari ekin behar zaiola udal eta aldundietatik. "Egunerokoan. Eta hori, zuei guztiei esker, egunero lanean diharduzuen ehunaka zinegotzi eta alkateei esker, familiari eta atsedenari orduak kenduz, inor eta inoiz baino gertuago gaude arazoetatik eta konponbideetatik. Lekuari lotutako alderdia gara. Jendearen arazoei loturikoak".

Josu Jon Imazek Xabier Arzalluzek kontatu ohi zuen pasadizoa gogorarazi zuen. Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde batzuk baino lehen, Sabin Etxera joan zen ezindu elkarte bat aipatu zuen, Alderdiak beren nahiak jaso zitzan irisgarritasun kontuei zegokienez. "Xabierrek, oso harkor, galdetu zien: egon al zarete gainerako taldeekin? Ba bai. Eta HBkoek zer esan dizuete? Ez arduratzeko. Lehenik eta behin autodeterminazioa lortu behar dela eta hori konpontzean gurea ere ebatziko dela. Alderdi batzuk haiek bezala dabiltza. Erabakitzeko ahalmenean bakarrik pentsatuz. Eta bitartean erabakiak hartu egin behar dira. Eta guk beti bezala, herri gisa ditugun eskubideak exijitzen ditugu, baina jendearen arazoei lotuta jarraitzen dugu une berean".

Burukide jeltzaleak laster ospatuko diren udal eta foru hauteskundeak azpimarratu zituen. "Lanerako zortzi hilabete geratzen zaizkigu. Arazo bakoitzari konponbidea eskaintzeko.



Imazek adiskidetasun keinu asko jaso zituen

trabajo. De ofrecer soluciones a cada problema. De ofrecer ilusión y liderazgo pueblo a pueblo en Euskadi. No vamos solos. Vamos con todas vosotras y vosotros. Vamos con centenares de miles de vascos que quieren que el Partido Nacionalista Vasco lidere este país hacia el futuro. Vamos con todos los que han visto que hemos liderado Euskadi desde aquellas industrias que se caían a pedazos y aquellos paros brutales, hasta la situación de ahora. Tenemos pueblos y ciudades que mejoran en mucho lo que se ve por el mundo. Hemos llegado hasta aquí, cuando los de la revolución miraban al modelo de Alemania Oriental de la que después la gente se empezó a escapar en cuanto tiraron el muro, o a la Cuba de Fidel en la que no se escapan más porque no pueden. Y nosotros mirábamos a Europa. Y ahora miramos a los líderes en Europa. Para competir con ellos. Para poner a Euskadi a la cabeza del pelotón. Para seguir construyendo futuro, calidad de vida y bienestar".

## "Somos el partido líder de Euskadi"

Por último, Josu Jon Imaz lanzó un mensaje de ánimo y esperanza a los congregados en Foronda. "Somos el Partido líder de Euskadi. Vamos a entregarnos sin complejos, con generosidad, a que la paz sea posible. Vamos a liderar la negociación de un autogobierno que respete la voluntad de los vascos, que respete nuestra identidad, y que nos permita seguir dando oportunidades de formarse, de trabajar, de desarrollar sus proyectos a todos los vascos. Y vamos a liderar la Euskadi en paz. La Euskadi que quiere ser vasca, abierta, formada, innovadora, competitiva y solidaria en el mundo. Este es el proyecto que presentaremos a la sociedad vasca en primavera. Con la convicción de tener capacidad de hacerlo de aquí en adelante, y con la humildad de pedir a la sociedad vasca que nos vuelva a dar su confianza. Para ganar las próximas elecciones. Y no vamos a presentarnos solos. Vamos a presentarnos, y sobre todo a hacerlo, con la ayuda y el trabajo de todos vosotros".

Gora Euskadi askatuta !

Euskadiko herriari ilusioa eta buruzagitza eskaintzeko. Ez goaz bakarrik. Zuekin guztiekin goaz. Euzko Alderdi Jeltzaleak herrialde hau etorkizunerantz eramatea nahi duten milaka eta milaka euskaldunekin goaz. Pusketaka erotzen ziren industrien eta langabezi gogorren garaian eta egungo egoerara iritsi arte Euskadiren buruan egon garela ikusi duten horiekin goaz. Munduan ikusten dena asko hobetzen duten herri eta hiriak ditugu. Honaino iritsi gara, iraultzakoek murrua eraitsi ondoren guztiek ihesi utziko zuten Ekialdeko Alemaniaren ereduari begiratzen ziotenean, edo Fidelen Kubari begiratzen ziotenean. Hangoek ez dute alde egiten ezinezkoa zaielako. Eta guk Europarantz begiratzen genuen. Eta orain Europako buruzagiei begiratzen diegu. Haiekin lehiatzeko. Euskadi pelotoiaren buruan jartzeko. Etorkizuna, bizi kalitatea eta ongizatea eraikitzen jarraitzeko".

## "Euskadiko alderdi aitzindaria gara"

Azkenik, Josu Jon Imazek animu eta itxaropen mezua bidali zien Forondan bildutakoei. "Euskadiko alderdi aitzindaria gara. Konplexurik gabe emango gara, eskuzabaltasunez, bakea posible izan dadin. Euskaldunon nahia errespetatuko duen autogobernuaren negoziazioa bideratuko dugu, gure nortasuna errespetatuz, eta euskaldun guztiei prestatu, lan egin eta beren proiektuak garatzeko aukerak ematen jarraitzea ahalbidetuko duen autogobernua bilatuz. Eta Euskadiren buruan egongo gara bakerako. Euskalduna, irekia, prestatua, berritzailea, lehiakorra eta munduarekin solidarioa izan nahi duen Euskadi bat. Hori da euskal gizarteari udaberrian aurkeztuko diogun proiektua. Hemendik aurrera egiteko ahalmena izango dugunaren ziurtasunean, eta euskal gizarteari berriro konfiantza ematea eskatzeko apaltasunarekin. Datozen hauteskundeak irabazteko. Eta ez gara bakarrik aurkeztuko. Aurkeztu, eta batez ere egin egingo dugu, zuen guztien laguntza eta lanarekin"

Gora Euskadi askatuta !

# ALDERDI EGUNA IRUDIETAN
























Belaunaldi desberdinak batu ziren 2006ko Alderdi Egunean


Euzko Gudarostea siempre fiel




Iparraldeko Uri Buru Batzarrak desfilean
IBB IPARRALDEKO BILTZARRA
HERRI BILTZARRA


Gora Ikurriña!


A la altura de las circunstancias


UDB
Partidos nacionalistas europeos desfilaron por las campas de Foronda


En las txosn
no hubo mon
para el desca


Nuestros representantes en Gasteiz, Madrid y Europa


Itziar Andonegi eta Beti Duñabeitia ikurriña igo zuten


Sahara aurrera!






Sardina
freskue...




Gazteenek ere
beraien txokoa
izan zuten


On egin!


Txomin Saratxaga
eta
Josu Jon Imaz

# EL LEHENDAKARI invita a la sociedad a participar en el proceso de PAZ




Juan José Ibarretxe 2006ko Alderdi Egunean

**El Lehendakari invitó a toda la sociedad vasca a participar sin dirigismos en el proceso de paz y normalización política de Euskadi. Juan José Ibarretxe emplazó también al resto de partidos a que respeten la voluntad democrática de la sociedad vasca. "Nosotros siempre respetaremos lo que decidan los vascos, ¿lo respetarán los demás?" se preguntó a continuación.**

El Lehendakari, Juan José Ibarretxe, invitó a la sociedad vasca a participar "sin dirigismos, activamente y desde el principio" en el proceso de paz y normalización política que vive Euskadi. Ante los miles de militantes y simpatizantes de EAJ-PNV congregados en Foronda para celebrar el trigésimo Alderdi Eguna, el Lehendakari dijo que "no es suficiente con que al final votéis una propuesta. Tenéis que participar dando vuestra opinión desde el comienzo. Participación sin dirigismos, porque si intentara alguien dirigir este debate, también el Lehendakari,

**Lehendakariak gonbitea luzatu zion euskal gizarte osoari, Euskadiko bake prozesuan eta normalizazio politikoan dirigismorik gabe parte har zezan. Juan José Ibarretxek gainerako alderdiei ere euskal gizartearen borondate demokratikoa errespetatzeko eskatu zien. "Guk beti errespetatuko dugu euskaldunek erabakitzen dutena, gainerakoek ere errespetatuko al dute?" galdetu zuen ondorenean.**

Juan José Ibarretxe lehendakariak Euskadik bizi duen bake prozesuan eta normalizazio politikoan "dirigismorik gabe, aktiboki eta hasieratik" parte hartzera gonbidatu zuen euskal gizartea. Forondan hogeita hamargarren Alderdi Eguna ospatzeko bildutako EAJ taldeko milaka jel kide eta jarraitzaileren aurrean, Lehendakariak adierazi zuen "ez dela nahikoa azkenean proposamen bati botoa ematea. Zuen iritzia emanez hasiera-hasieratik parte hartu behar duzue. Dirigismorik gabeko parte-hartzea, inork eztabaida hau zuzentzeko saiakera



El Lehendakari recibe muestras de apoyo

estaríamos condenando al fracaso el proceso de participación". En su intervención el Lehendakari advirtió que "si la relación entre el Estado español y Euskadi no es decidida voluntariamente, siempre será frágil". En este sentido pidió que se "respete" la voluntad de la sociedad vasca. "Nosotros respetaremos, siempre, lo que diga la sociedad vasca. Sea lo que sea. ¿Lo respetarán los demás?" se preguntó, al tiempo que reprochó la actitud del Partido Socialista y el Partido Popular al haber rechazado "a palo seco" en las Cortes Generales la Propuesta de Nuevo Estatuto Político, aprobada por mayoría absoluta en el Parlamento. "¿Esas son las reglas del juego?, ¿es eso construir desde el respeto?, ¿es eso ser demócrata?" se preguntó.

## EAJ-PNV debe marcar el camino

A su juicio, es EAJ-PNV quien tiene que marcar el camino en este país frente al "nerviosismo, el desequilibrio y la confusión" que, en su opinión, muestran otros partidos políticos, puesto que "somos los líderes naturales de este país". Asimismo añadió que corresponde al Lehendakari "dirigir, liderar un proceso que permita a la sociedad vasca incorporarse a este proceso de paz, de normalización política, de búsqueda de acuerdos".

Juan José Ibarretxe inició su intervención con un "reconocimiento y recuerdo" expreso a las víctimas de ETA, entre las que citó a las de la Ertzaintza, Guardia Civil, Policía Nacional y Ejército español, para las que, lamentó, "este momento ilusionante llega tarde".

egingo balu, Lehendakaria barne, parte-hartze prozesuaren porrota iritsiko litzatekeelako beste erremediorik gabe".

Eginiko mintzaldian, Lehendakariak azpimarratu zuen "Estatu espainiarraren eta Euskadiren arteko harremana ez bada boluntarioki aukeraturikoa, beti ahula izango da". Zentzu horretan eskatu zuen euskal gizartearen borondatea "errespetatu" zedila. "Guk euskal gizarteak esaten duena errespetatuko dugu beti. Edozein delarik ere. Gainerakoek ere errespetatuko al dute?" galdetu zion bere buruari. Une horretan bertan Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren jarrerak gaitzetsi zituen Gorte Nagusietan Estatutu Politiko Berrirako Proposamenari ezezkoa eman izanagatik "besterik gabe", nahiz eta Legebiltzarrak gehiengo osoz onartu zuen. "Horiek al dira jokoaren arauak?, hori al da errespetutik abiatuz eraikitzea?, hori al da demokrata izatea?" galdetu zion bere buruari.

## EAJ alderdiak ildoa adierazi behar du

Bere ustez, EAJ taldea da herri honetan ildoa adierazi behar duena, bere ustez, gainerako talde politikoek agertzen duten "urduritasun, desoreka eta nahasmenduaren" aurrean, izan ere, "herrialde honetako buru naturalak gara." Halaber erantsi zuen, Lehendakariari dagokiola "euskal gizarteari normalizazio politikoko, akordioak bilatzeko, bake prozesu honetan sartzea ahalbidetuko dion prozesua zuzentzea, buru izatea".

Juan José Ibarretxek ETAren biktimak "onartuz eta oroituz" hasi zuen bere mintzaldia. Horien artean Ertzaintzako, Guardia Zibileko, Polizia Nazionaleko eta Ejertzito espainiarreko kideak




**Forondako zelaietan milaka alderdikide elkartu ziren**

Finalmente el Lehendakari aseguró a los afiliados de EAJ-PNV que la gestión del partido nacionalista al frente de las instituciones durante los últimos veinticinco años ha situado a Euskadi a la cabeza en Europa en materia de bienestar social y calidad de vida. "A pesar de la violencia, los obstáculos o la crisis económica, hoy presentamos un país ordenado" dijo. Después de reconocer que "quedan muchas cosas por hacer", subrayó que son muchas otras las que se han hecho bien. "No hemos estado echando la siesta. Este país liderado por nacionalistas desde las instituciones ha sabido colocarse a la cabeza de Europa en solidaridad, en entender que el progreso es para todos o no sirve".

Asimismo destacó que frente a la pretensión del partido socialista de tratar de "diluir como un azucarillo en el café la personalidad, la cultura y la identidad vasca en la española", el partido nacionalista ha trabajado desde las instituciones, teniendo claro que "EAJ-PNV es un instrumento al servicio de la transformación de este pueblo, para defender su identidad, para defender que el futuro nos pertenece".

aipatu zituen eta adierazi, haientzako "poztasun garai hau berandu iritsi dela".

Azkenik, Lehendakariak EAJ alderdiko kideei baieztatu zien, alderdi nazionalistak azken hogeita bost urteetan erakundeen buruan eginiko kudeaketari esker, Euskadi Europako buruan kokatu dela ongizate eta bizi kalitatearen esparruetan. "Indarkeria, oztopoak edo krisi ekonomikoa gorabehera, gaur egun herrialde ordenatua aurkezten dugu" esan zuen. "Hainbat gauza egiteko daudela" onartu ondoren, beste horrenbeste jada ondo egin direnak direla azpimarratu zuen. "Ez gara siesta botatzen aritu. Erakundeetatik nazionalistek bideratzen duten herrialde honek Europaren buruan kokatzen jakin du solidaritatean, garapena guztiontzako ez bada ez duela ezertarako balio ulertzean".

Halaber azpimarratu zuen, alderdi sozialistak "euskal nortasuna, kultura eta identitateak azukre koskorrak kafean balira bezala disolbatzeko" asmoaren aurrean, alderdi nazionalistak erakundeetatik egin duela lan, argi izanda "EAJ herri honen eraldaketaren esanetara dagoen lanabesa dela, duen nortasuna defendatzeko, guri dagokigun etorkizuna defendatzeko".

# JOSU JON IMAZEK Kataluniako Sant Jordi gurutzea jaso



Pasqual Maragall entrega la Creu de Sant Jordi al presidente del EBB

**A propuesta del president Maragall, la Generalitat de Cataluña ha concedido a Josu Jon Imaz la Creu de Sant Jordi porque "su capacidad de diálogo contribuye, en una medida importante, a la actual etapa de pacificación. Las perspectivas abiertas por el proceso de paz y el fin de la violencia tienen, en este dirigente nacionalista, un reconocido actor".**

La Creu de Sant Jordi es la máxima distinción que concede la Generalitat, y recae en aquellas personas y entidades que se distinguen en defensa de la identidad catalana. Entre los galardonados, destacan el ex entrenador del FC Barcelona, Johan Cruyff; el presidente de Caixa Catalunya, Narcís Serra; el abogado Miquel Roca, la directora de cine Isabel Coixet, el editor de La Vanguardia, Javier Godó, y el sociólogo Manuel Castells.

Entre las entidades galardonadas, la Associació de Familiars de Represaliats pel Franquisme y la Asociación para la recuperación de la memoria histórica de Catalunya.

Tras el acto de entrega de las cruces, Pascual Maragall y Josu Jon Imaz se reunieron durante cerca de una hora. El encuentro se produjo sin cita previa y a solicitud del presidente Maragall, sin que trascendiera a la prensa el contenido de los temas tratados.

**Maragall presidentaren proposamenez, Kataluniako Generalitateak Sant Jordi Gurutzea eman dio Josu Jon Imazi "bere elkarrizketarako gaitasuna lagungarri baita, neurri handi batez, gertatzen ari den bakegintzan". Epai-mahaiaren ustez "buruzagi abertzale hau jakineko eragilea da indarkeriari amaiera emateko zabaldu diren aukerabideetan".**

Sant Jordi Gurutzea da Generalitateak urtean behin eskaini izaten duen sarikurrik gorena, eta Kataluniako nortasunaren alde nabarmentzen direnen artean zabaldu ohi da. Aurtengo sarituen artean aipagarri, besteak beste, Johan Cruyff, FC Barcelona taldearen entrenatzaile ohia; Narcís Serra, Caixa Catalunyaren lehendakaria; Miquel Roca legegizona; Isabel Coixet zine-zuzendaria; Javier Godó, La Vanguardia egunkariaren editorea eta Manuel Castells soziologoa.

Sarituak izan direnen elkarteen artean, berriz, Associació de Familiars de Represaliats pel Franquisme deritzana eta Kataluniako Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartea.

Liceu antzokian izan zen sari-emanaldiaren ondotik, Josu Jon Imaz eta Pascual Maragall elkarrekin bildu ziren ordubete inguru. Bilera bat-batekoa izan zen, aldez aurretikako hitzordurik gabe eta Maragall beraren eskariz.

# OROIMENAREN URTEA.
# Las Guerras de la Guerra



Ariztondo hiru hizlariekin Carltonen

**Hay quienes sostienen que lo sucedido en 1936 fue una guerra de la derecha intolerante, antidemocrática y golpista contra la izquierda progresista y democrática. Esto existió pero no fue todo. Ni mucho menos. En Euskadi, Catalunya y Galicia, se vivió, se luchó y se murió en defensa de la Patria y de la República, de la causa nacional, inseparable de la democracia.**

El pasado 21 de septiembre celebramos en el Hotel Carlton el encuentro "Las Guerras del la Guerra". Fue un homenaje a los hombres y mujeres que sostuvieron la dignidad colectiva en medio de aquel oprobio, un lugar para recordar a los que defendieron nuestro futuro a costa de su vida.

1936 en Euskadi, Cataluña y Galicia. Tres paisajes, tres imágenes, tres relatos sobre aquel verano-otoño del 36. Un movimiento político histórico, GALEUSCAT. Y tres conferenciantes: Encarna Otero (GAL), Koldo San Sebastián (EUS) y Toni Vives (CAT), que nos ofrecieron su visión sobre la situación socio-política y los proyectos estatutarios emergentes en Galicia, Euskadi y Cataluña.

Tres naciones y una profunda solidaridad de GALEUSCAT, heredera de la histórica GALEUZCA. Porque sabemos que la recuperación de nuestra memoria es la clave para seguir impulsando juntos nuestro discurso de la plurinacionalidad, sin dejar de reconocernos a nosotros mismos.

**Batzuek diote 1936an gertatutakoa eskuin intolerante, antidemokratiko eta kolpistak ezker progresista eta demokratikoaren aurka egindako gerra izan zela. Hori hala izan zen, baina ez zen hori bakarrik izan, ezta pentsatu ere. Euskadin, Katalunian eta Galizian, Aberria eta Errepublika, demokraziatik bereizi ezin den kausa nazionala, babesteko bizi izan, borrokatu eta hil zen jendea.**

Joan den irailaren 21ean Carlton hotelean "Las Guerras de la Guerra" topaketan parte hartu genuen. Desohorezko egoera hartan duintasun kolektiboa defendatu zuten gizon eta emakumeei omenaldia egin zitzaien, gure etorkizuna beren bizitzaren kontura babestu zutenak gogora ekartzeko lekua izan zen.

1936 Euskadin, Katalunian eta Galizian. 36ko uda-udazken hartako hiru paisaia, hiru irudi, hiru kontakizun. Mugimendu politiko eta historikoa, GALEUSCAT. Eta hiru hizlari: Encarna Otero (GAL), Koldo San Sebastián (EUS) eta Toni Vives (CAT). Hauek Galizia, Euskadi eta Kataluniako egoera sozio-politikoari eta horietan sortzen ari diren estatutu-proiektuei buruzko iritzia eman ziguten.

Hiru herrialde eta GALEUSCATen elkartasuna, GALEUZCA historikoaren oinordeko. Izan ere, badakigu gure memoria berreskuratzea dela elkarren nazionalitate aniztasunari buruzko gure diskurtsoa bultzatzen jarraitzeko giltzarria, geure burua alde batera utzi gabe.


Balendin Enbeita

# BALENDIN ENBEITAREN mendeurrena

**Balendin Enbeita nació hace 100 años, el 20 de mayo de 1906, en el caserío Jeuri del barrio Usparitxa de Muxika. Nieto de Juan Antonio Enbeita "Txotxo-Jeuri" e hijo de Kepa Enbeita "Urretxindorra", Balendin Enbeita aprendió mucho de ellos, pero también sus descendientes aprendieron mucho de Balendin Enbeita.**

Fue durante los años previos a la Guerra de 1936 cuando comenzó su andadura como bertsolari en público. En 1929 ganó el Campeonato de Bizkaia, celebrado en Mungia, y en 1930, el celebrado en Getxo. Improvisaba bertsos no sólo en recitales, sino también en mítines del PNV, muchas veces junto a Lauaxeta. Pero la Guerra de 1936, tal como les ocurrió a muchos otros, interrumpió su trayectoria. Tras el bombardeo de Gernika, marchó a Bilbao y comenzó a trabajar como mediador del Gobierno Vasco. Una vez acabada la guerra, y haciendo frente de la mejor manera posible a las dificultades económicas, volvió a trabajar a favor del euskera. Fueron años muy prósperos para el bertsolarismo. Resultó ganador en los dos campeonatos que se celebraron en Bizkaia tras la Guerra de 1936, concretamente en 1958 y 1959, y llegó a la final en los tres años siguientes.

En 1959, junto con Pedro Ajuria, creó la bertso eskola de Garri, en Ariatza. La primera escuela de bertsos de la historia. Durante aquellos años, Balendin Enbeita fue una referencia importante para los bersolaris jóvenes, sobre todo, para los de Bizkaia. En 1974 publicó la colección de bertsos "Nere apurrak", en 1984 lo nombraron miembro de la Academia de la Lengua Vasca y en 1986 publicó la autobiografía "Bizitzaren joanean". Falleció ese mismo año.

**Balendin Enbeita duela 100 urte jaio zen, 1906ko maiatzaren 20an, Muxika herriko Usparitxa auzoko Jeuri baserrian. Juan Antonio Enbeita "Txotxo-Jeuri"-ren biloba eta Kepa Enbeita "Urretxindorra"-ren semea izanik, asko ikasi zuen Balendin Enbeitak haiengandik, baina ondorengoek ere asko ikasi zuten Balendin Enbeitarengandik.**

36ko gerraren aurreko urteetan hasi zen jendaurreko bertsogintzan. Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen 1929an, Mungian, eta 1930ean, Getxon. Bertso saioetan ez ezik, EAJren mitinetan ere aritzen zen bertsotan, Lauaxetarekin askotan. Baina, beste askorena bezala, Balendin Enbeitaren bidea ere 36ko gerrak eten zuen. Gernikako bonbardaketaren ostean, Bilbora joan zen eta Eusko Jaurlaritzarentzat bitartekari lanetan hasi zen. Gerraren ondoren, zailtasun ekonomikoei ahal izan zuen moduan aurre eginik, berriro lotu zitzaion euskararen aldeko lanari. Bertsolaritzan urte joriak izan zituen. Bizkaian 36ko gerraren ondoren egin ziren bi txapelketak irabazi zituen, 1958koa eta 1959koa, eta hurrengo hiru urteetan finalera iritsi zen.

Ariatzako Garriko bertso eskola sortu zuen, 1959an, Pedro Ajuriarekin batera. Huraxe izan zen historiako aurreneko bertso eskola. Urte horietan erreferentzia garrantzitsua izan zen Balendin Enbeita bertsolari gazteentzat, bizkaitarrentzat batik bat. 1974an "Nere apurrak" bertso bilduma kaleratu zuen, 1984an euskaltzain izendatu zuten, eta 1986an "Bizitzaren joanean" autobiografia eman zuen argitara. Urte horretan hil zen.

# alderdi eguna´06

Irailaren **24**a

**FORONDA**

